

UZTALAI udaleku irekiak– 2026

OINARRIAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

1. Jardueraren helburua, datak eta ordutegia

1.1. **Helburu nagusia:** euskaraz bizitzea, jolastea eta gozatzea.

Beste helburu batzuk: bestelako balioak landu: tratu ona, emozioen kudeaketa, natura, parte-hartzea, aniztasuna, autonomia,...

Hori guztia, **jolasa** oinarri hartuta.

1.2. **Datak:** 2026ko ekainaren 29tik uztailaren 24ra.

1.3. **Zerbitzua:** aurten ere, udalekuetan parte hartzen duten haurrentzat zaintza zerbitzua eskainiko da. Zerbitzu hau martxan jartzeko gutxieneko haur kopurua 10ekoa izango da.

1.4. **Ordutegia:**

- Udalekuetako ordutegia: 09:30etik 12:30era.
- Zaintza zerbitzuaren ordutegia: 8:00etatik 9:30era.
- HH2 eta HH3koen kasuan, udalekuaren lehenengo egunean egokitzapena egiteko ordutegi bereziak ezarriko dira. Hala, lehenengo egun horretan sarrera mailakatua egitea aurreikusten da, begiraleek haurrei harrera egokia egiteko aukera izan dezaten. Udalekua hasi aurretik, horren berri emango zaie familiei posta elektronikoko bidez.

2. Nork har dezake parte?

2016 eta 2023 urteen artean jaiotako haurrek har dezakete parte:

- HH-2 eta HH-3 (2023an eta 2022an jaiotakoak): Haztegi ikastolak Latxartegin duen eraikinean.
- HH-4tik LH-4ra (2021, 2020, 2019, 2018, 2017 eta 2016an jaiotakoak): aire librean egongo dira, osatuko diren haur-taldean arabera zehaztuko diren guneeetan:
 - HH-4: Latxartegi parkean eta, eguraldi txarrarekin, bertako eraikineko beheko solairuko gela handian.
 - HH-5: Agirre-Etxeberri parkean eta, eguraldi txarrarekin, Agirre-Etxeberri etxeko beheko solairuko gela handian.
 - LH-1etik LH-4ra: udaletxearen atzealdean eta aurrealdean; eguraldi txarrarekin, bertako arkupeetan.

Oharra: osatuko den talde kopuruaren arabera, azken orduko aldaketak egon daitezke kokalekuei dagokienez. Hala bada, horren berri emango zaiei familiei udalekuak hasi baino lehen.

3. Izen-ematea

2026ko maiatzaren 6tik 18ra (biak barne).

Izen-ematea online egingo da helbide honetan: <https://udalekuak.legazpi.eus>

Izen-ematea online egiteko, baliozko helbide elektronikoko bat izan behar da. Galdetegia bete ondoren, helbide horretan berehala jasoko da mezu bat, eta bertan izen-emate orria egongo da, emandako datuekin osatua.

Dokumentu hori elektronikoki sinatzea gomendatzen da (ziurtagiri digital batekin edo BakQ-ekin) eta ondoren helbide honetara bidali: euskara@legazpi.eus.

Elektronikoki sinatu ezin bada, jasotako izen-emate orria inprimatu, sinatu eta Herritarrentzako Arreta Bulegoan aurkeztu beharko da **maiatzaren 30erako**.

Kontuan izan internet bidez egindako izen-emateek ez dutela baliorik izango dokumentua sinatuta aurkezten ez bada.

Bestalde, izen-ematea online egin ezin dutenek aurrez aurre egin ahal izango dute Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, maiatzaren 18ko 14:30ak arte.

4. Plazak eta taldeak

Eskaintza udalerrian eskolatutako HH-2 eta LH-4. maila arteko haurrei dago zuzenduta.

Hasiera batean, eta justifikatutako arrazoiengatik bestelakorik erabakitzen ez bada, udalekuetan epe barruan izena emandako haur guztiak onartuko dira.

Zaintza zerbitzua martxan jartzeko gutxieneko haur kopurua 10ekoa izango da.

Taldeko haur-kopuruei dagokienez:

- HH-2 eta HH-3: 10 haur.
- HH-4 eta HH-5: 12-14 haur.
- LH: 14-16 haur.

Taldeek ezaugarri hauek izango dituzte:

- Talde bakoitzak begirale bat izango du.
- Talde bakoitzari gunek bat esleituko zaio.
- Begiraleen koordinazioaz eta udalekuen zuzendaritzaz arduratuko den pertsona bat egongo da, begiraleen lana eta jarduera guztiak koordinatzeko.

Epez kanpo ez da haur gehiago onartuko. Soilik dagokion taldean tokia baldin badago onartuko da epez kanpo datorrena.

Salbuespenez gisa, uztailean Legazpin bizi diren senitartekoen etxera datozen adin horietako haurrak onartu ahal izango dira, baldin eta euskaraz ondo ulertzeko gai badira, euskara baita udalekuaren hizkuntza.

5. Matrikularen prezioa

Udalekuetako prezioa honakoa izango da:

- Seme-alaba bakarra: 85,00 €
- Bigarrena: 54,40 €
- Hirugarrenetik aurrera: doan

Zaintza zerbitzuko prezioa honakoa izango da:

- Seme-alaba bakarra: 42,00 €
- Bigarrena: 26,88 €
- Hirugarrenetik aurrera: doan

Izen-ematea amaitu ondoren, haur-taldeak maiatzaren 19ko astean osatuko dira, eta ondoren begiraleen kontratazioari ekingo zaio.

Taldeak osatu direla jakinaraziko zaie gurasoei, eta udalekua hasi aurretik, ekainaren bigarren astean, tasa kobratzeko ordainagiriak banketxeetara bidaliko dira.

Haurra onartuta dagoela jakinarazi eta tasa kobratu ondoren, gurasoren batek haurra(k) udalekuetara joango ez dela/direla erabakitzen badu, ez da matrikularen prezioa itzuliko.

6. Udalekuen gaineko informazioa

Legazpiko Udalak webgune bat sortu du, bertan udaleku irekien gaineko informazioa emateko: informazio orokorra, epeak, tasak, taldeak, begiraleak, ekintzak, oharrak, etab.

Helbidea: <https://udalekuak.legazpi.eus>

7. WhatsApp-a

Udaleku irekian zehar, guraso edo tutoreei bidali beharreko abisu guztiak WhatsApp bidez bidaliko dira.

Mezuak WhatsApp-eko banaketa-taldeen bidez igorriko dira, eta horretarako taldeak osatu behar dira. Taldeak osatzea lan handia denez, Udalak izen-ematean emandako lehen telefono-zenbakia erabiliko du haur bakoitzeko. Justifikatutako arrazoiengatik soilik (adibidez, zaintza partekatua) onartuko da bigarren telefono-zenbaki bat gehitzea.

Gurasoek eta tutoreek mezuak jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da udalekuetako telefono-zenbakia beren telefonoaren agendan gordeta izatea. Aurtengo zenbakia udalekua hasi baino astebete lehenago jakinaraziko zaie familia guztiei.

8. Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Uztalai udaleku irekian izen-emateko eman dituzun datuak LEGAZPIKO UDALAREN titularitate eta erantzukizuneko fitxategi batean sartuko dira, Datu pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 15eko 3/2018 Lege Organikoa eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko Legea betetze aldera.

Fitxategi honen xedea udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea, bai eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabiltzearen kalterik gabe; beti ere, aplikatzekoa den legeria betez.

Edonola ere, eskaera sinatzean, eskatzailea informatuta dagoela ulertuko da. Era berean, adierazitako xedeetarako eta legean jasotako helburuetarako bere datuak erabiltzeko oniritzia ematen duela ulertuko da.

Gogoan izan eskainitako datuetara sarbidea duzula eta datuak zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea duzula, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera betiere. Horretarako, eskaera aurkez dezakezu udaletxean honako datuak adieraziz: izen-deiturak, jakinarazpenetarako helbidea, eskaera zehatza, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Eskaera hori honako helbidera bidaliko da: Euskal Herria plaza 1. 20230 Legazpi.

Erosoagoa egiten bazaizu, eskubide horiek Udalaren web orriaren bidez erabil ditzakezu helbide honetan: www.legazpi.eus.

Halaber, "Datu Pertsonalen Babesaren arloko jardunbide Egokien Eskuliburua EAEko toki erakundeetarako" izeneko gidaliburua kontsulta dezakezu Interneteko helbide hauetan: www.eudel.eus eta www.avpd.es.

9. Ekintzak

Adinaren arabera, baliteke udalekuetan irteeraren bat antolatzea. Hori dela eta, haurren guraso edo tutoreek baimena ematen dute antolatutako irteeretan erakundeak egokitzat jotzen duen garraio-bidea (trena, autobusa, bizikleta, etab.) erabiltzeko.

Irteera dagoen egunetan ez dago beste zerbitzurik eskainiko; beraz, baimena ematen ez duten haurrek ez dute bestelako zerbitzu berezirik izango.

Begiraleek egindako balorazioa aintzat hartuta, asteko programazio orokor bat jarriko da ikusgai webgunean; izan ere ekintzak moldatu egin daitezke eguneko talde-dinamikek eta baldintzek horrela eskatzen badute.

LHko haurrak igerilekura joango dira egun batzuetan, eta gurasoek edo tutoreek baimena ematen dute horretarako. Halakoetan, haurrak arazoren bat baldin badu, horren berri eman beharko zaio udalekuko zuzendariari.

10. Osasun kontuak

Udalekuetako ordutegian hurren batek ezbeharren bat izanez gero, berehala jakinaraziko zaio zuzendariari, eta hau harremanetan jarriko da familiarekin izen-ematean eman duten telefono-zenbakira deituz. Ezbeharra larria bada, haurra zuzenean osasun-zentrora eramango da edo larrialdietarako telefonora deituko da.

Azkenik, udalak unean uneko segurtasun eta higiene irizpideak aintzat hartuko ditu, eta une oro osasun agintariak ezarritako neurriak beteko ditu.

Legazpin, 2026ko maiatzaren 5ean.